



## **KONTINGENTZIA-PLANA JOAQUIN MAYA MUSIKA ESKOLAREN** **ESKOLA-JARDUERARAKO - 2021-2022ko IKASTURTEA**

### **AURKIBIDEA**

<b>Segurtasun-, higiene- eta osasun-neurriak</b>	3. or.
<b>Barne joan-etorriak eta eraikinerako sarbidea</b>	5
<b>Maskararen erabilera eta beste babes-neurri batzuk</b>	6
<b>MAILEGU-INSTRUMENTUAK edota partekatzekoak</b>	7
<b>IRAKASLEEN ANTOLAKETA</b>	8
<b>IKASKETA-KABINEN ERABILERA</b>	9
<b>TALDEKO IRAKASGAIEN ANTOLAKETA: MUSIKA-HIZKUNTZA, HARMONIA ETA KORUA</b>	9
<b>ESKOLAKO INSTRUMENTU- ETA AHOTS-TALDEEN JARDUERAREN ANTOLAKETA</b>	10
<b>I. ERANSKINA: KUDEAKETA, IKASTEXEAN GERTA LITEZKEEN COVID-19AREN KASUETAN</b>	12
<b>JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLAREN ARRETA DIGITALAREN PLANA. 2021-2022KO IKASTURTEA</b>	14



## **KONTINGENTZIA-PLANA JOAQUIN MAYA MUSIKA ESKOLAREN** **ESKOLA-JARDUERARAKO - 2021-2022ko IKASTURTEA**

Kontingentzia Plan hau honako agiri hauetan oinarrituta eratu da: “Aurrez aurreko hezkuntza-jarduera 2021-2022ko ikasturtean garatzeko prebentzio- eta antolaketa-protokoloa”, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak argitaratua, non “Nafarroako Foru Komunitatean jarduteko esparru orokorra” zehazten baita<sup>1</sup>, eta “Jarduketa-gida ikastetxeetan ager daitezkeen COVID-19aren kasuen aurrean”, Espainiako Gobernuaren Osasun Ministerioak argitaratua.

Joaquín Maya Musika Eskolako COVID-19aren Kontingentzia Plana lankidetzan eratu da Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrarekin eta Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuarekin.

Plan honek Eskolak eskola-jarduna gauzatzeko ezarri dituen higie- eta antolaketa-neurriak jasotzen ditu, betiere bat etorrita osasun- eta hezkuntza-protokoloekin, Eskolako ikasleei eta langileei testuinguru segurua eskaintzeko xede nagusiaz, aurrez aurreko eskola-jarduna garatzeko.

### **2021-2022KO IKASTURTERAKO ARRETA DIGITALEKO PLANA TXERTATURIK DAGO KONTINGENTZIA PLAN HONETAN.**

Kontingentzia Plana Musika Eskolaren webgunean argitaratu eta behar beste zabalduko da irakasle, familia, ikasle eta administrazioko, zerbitzuetako eta garbiketako langileen artean. Edozein zalantza argitu edo kontsulta egiteko, Kontingentzia Planari buruz, hona idatz daiteke: [direccion.escuelamusica@pamplona.es](mailto:direccion.escuelamusica@pamplona.es)

**Pandemiaren bilakaeraren arabera, hezkuntza- eta osasun-agintariek bestelako jarraibideak ezartzen badituzte, Kontingentzia Plan hau agertoki berrira egokitu eta berriz ere zehaztu beharko da.**

### **- Segurtasun-, higie- eta osasun-neurriak**

---

<sup>1</sup> Protokolo horrek, izan ere, zehazten du “ikastetxeek Kontingentzia Plan bat eratu behar dutela haren osagarri”.



1. Hezkuntza-komunitateko kide guztiek, adina kontuan hartu gabe, maskara erabiliko dute Eskolan dauden denbora osoan, eta ezin izanen da bertara sartu maskararik gabe.
2. Maskara erabiltzetik salbuetsita daude honako agiri hauetan deskribatutako kasuak: “Neurriak, Nafarroarentzat, alarma-egoeraren ondoren, COVID-19aren osasun-krisiari aurre egiteko”,<sup>2</sup> Nafarroako Gobernuak argitaratua, eta Kontingentzia Plan hau argitaratu eta gero osasun-agintariek onets ditzaketen araudiak.
3. Eraikineren sartzekoan eskuak nahitaez desinfektatu behar dira.
4. **Ikasleak EZ dira Eskolara etorriko, honako kasu hauetan:**
  1. **Infekzio-sintomarik badute: sukarra, eztula, ondoeza.**
  2. **Kasu baten kontaktu estua badira eta berrogeialdia bete behar badute.**
5. Tenperatura hartzea ezin izanen da orokortu, COVID-19ari aurre egiteko prebentzio-neurri gisara.
6. Ikasgela bat prestatuko da COVIDarekin bateragarri diren sintomak dituzten pertsonak bertan isolatzeko, Hezkuntza Departamentuaren Protokoloan ezarritakoarekin bat.
7. Taldeko eskolen kasuan, ikasgelaz aldatzeko uneetan, amaitu duten ikasgelako ikasleek ez dute kointzidituko ikasgelan hasi behar dutenekin. Ikasleak korridorean egonen dira zain, eta ez ikasgelan edo auditorioan.
8. **Banakako eskolen kasuan, irten behar duten ikasleek eta sartu beharrekoek kointzidituko dute soilik ikasgelako dimentsioek ahalbidetzen badute segurtasun-distantzia (1,5 m) gordetzea.**
9. Ikasleak eta irakasleak elkarlanean arituko dira eskolan erabilitako mahaiak, aulkiak, atrilak eta bestelako objektuak garbitu eta desinfektatzeko lanetan. Horretarako, taldeko ikasgeletan biruzida bat egonen da 6 ikasleren multzo bakoitzeko, bai eta papera ere. 18 urtetik

---

## **5. P- ¿Hay excepciones a la obligatoriedad del uso de la mascarilla?**

**R-** Sí. No será exigible llevar mascarillas en los siguientes supuestos:

- **Personas** que presenten **algún tipo de enfermedad o dificultad respiratoria** que pueda verse agravada por el uso de la mascarilla o que, por su **situación de discapacidad o dependencia**, no dispongan de autonomía para quitarse la mascarilla, o bien presenten **alteraciones de conducta** que hagan inviable su utilización.
- En el caso de que, **por la propia naturaleza de las actividades**, el uso de la mascarilla **resulte incompatible**, con arreglo a las indicaciones de las autoridades sanitarias.



beherako ikasleek ezin izanen dituzte erabili garbitu eta/edo desinfektatzeko produktuak, ikasgelak garbitzen laguntzeko.

10. “Eguraldi txarreko egoeretan, ikasgela bezperan behar beste aireztatu bada, ez da beharrezkoa izanen eskola-jardunaren hasieran berriz ere aireztatzea, barneko aire-kalitatea zuzena izanen baita, eta horrela bermatzen baita tenperatura egokia izanen dela”.<sup>3</sup>
11. “Eskolen arteko denboran, leihoak guztiz irekiko dira 5 bat minutuz, barneko airea berritzeko”.<sup>4</sup> Aireztatze-aldi hori ez da beharrezkoa izanen eskola eman bitartean edo azken minutuetan leihoak irekita egon badira.
12. “Eskolaz kanpoko ordutegian, leihoak guztiz irekiko dira 5 bat minutuz, barneko airea berritzeko”.
13. Bakarrik irakasleek ahalko dute leihoak eta ateak ireki eta itxi, bai eta argi-giltzei edo bestelako gailuei eragin ere.
14. Taldeko eskoletan, 1,5 metroko distantzia egonen da lehen ikasle-lerroaren eta irakaslearen lan-eremuaren artean.
15. Ahal den neurrian ez da material partekaturik erabiliko taldeko eskoletan. Erabili behar izanez gero, erabiltzaileek gel hidroalkoholikoaz igurtziko dituzte eskuak erabili baino lehen eta ondoren.
16. Eskolako irakasleek entzunaldiak antolatzen ahalko dituzte ekitaldi-aretoan, publikoarekin eta gabe, betiere higieneari, distantzia sozialari eta edukierari buruzko neurriak betez, eta espazio horri dagozkion markak, aireztapen-protokoloak eta mugaketak erabiliz.
17. Igogailua ahalik eta gutxien erabiliko da, eta ahal dela eskailerak erabiliko dira. Igogailua ezinbestean erabili behar izanez gero, gehienez bi lagun sartuko dira, salbu eta laguntza behar duten pertsonen kasuan; izan ere, halakoetan laguntzaileek ere erabiltzen ahalko dute. Igogailua erabiltzen dutenek maskara eraman beharko dute, eta segurtasun-distantzia gorde.
18. Irakasleei eta administrazioko zein zerbitzuetako langileei jakitera emanen zaie zer protokolori jarraitu behar zaion COVID-19aren kasuren bat gertatzen bada. Protokolo hori Kontingentzia Plan honen I. eranskinean kontsultatu daiteke.

## – Barne joan-etorriak eta eraikinerako sarbidea

---

<sup>3</sup>Aurrez aurreko hezkuntza-jarduera 2021-2022ko ikasturtean garatzeko prebentzio- eta antolaketa-protokoloa. Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernuak.

<sup>4</sup> Idem.



1. Ahalik eta gehien mugatuko da Eskolaz kanpoko jendearen presentzia, betiere irakasleak, ikasleak eta administrazioko, mantentze-lanetako eta zerbitzu orokorretako langileak Eskolako langiletzat ulertuta.
2. Arau orokor gisara, gurasoak eta Eskolatik kanpoko edozein pertsona ez da eraikinean sartuko eskola-orduetan (14:30etik 22:00etara).
3. Zenbait irakasle gainbegiralek eta laguntzailek ikasleei esanen diete non dauden beren ikasgelak, batez ere ikasturteko lehen egunetan.
4. Lehen eskola-egunetan, instrumentuko irakasleak eraikinaren sarreran egonen dira harrera egiteko hala hastapen-mailako ikasleei nola beste mailetakook izanda adinarengatik, heldutasun-puntuarengatik edo ikastetxera instrumentu astunak eramateagatik laguntza behar duten ikasleei.
5. Aita, ama edota legezko tutoreei ahal dela telefonoz edo telematikoki emanen diete arreta hala irakasleek nola Eskolako Administrazioak. Aurrez aurreko arreta jasotzeko lehenago hitzordua hartu behar da, eta hura bitartean maskara erabili behar da, eta segurtasun-distantzia gorde.
6. Jende-pilaketak eta alde komunetan aldi berean igarotzea ekiditeko, senideak ezin dira Eskolara sartu ikasleak ekarri edo jasotzeko.
7. Mesedez eskatzen diegu gurasoei eta ikasleei puntualtasuna zorrotz betetzeko: ez iritsi eraikinera ez goiz ez berandu, barneko joan-etorriak erraztu eta jende-pilaketak ekiditeko.
8. Paketeak Atezaintzan jaso eta entregatuko dira.
9. Zenbait zirkuitu mantenduko dira, elkarrengandik bereizita, eraikinaren barnean mugitzeko, hala iristeko eta irteteko nola irakasgaiez aldatzeko.
  1. Eraikinaren eskailera nagusia: igoera/sarrera zirkuitua
  2. Larrialdietako eskailerak: jaitsiera/irteera zirkuitua
  3. Eskailera modernista: irakasleen, administrazioko, zerbitzuetako eta garbiketako langileen joan-etorriak.
10. Eraikinaren barneko joan-etorrietan, erabiltzaileek ez dituzte ukituko gune komunetako objektuak eta tresnak, hala nola eskudelak, mahaiak, aulkiak eta abar, eta maskara uneoro erabiliko dute.
11. Itxarongela
  1. Gurasoek eta tutoreek ezin izanen dute espazio hau erabili ikasleen zain egoteko edo haiek jasotzeko.
  2. Itxarongela ikasleen igarobidea da: larrialdietako eskaileraren irteera, ikasleak ateratzeko erabiliko dena, Itxarongelan amaitzen da.
  3. Gel hidroalkoholikoa, soluzio biruzida eta paper xukagarria egonen dira saltzeko makina automatikoen ondoan. Horiek ikastetxeko langileek bakarrik erabiliko dituzte.



## - Maskararen erabilera eta beste babes-neurri zehatz batzuk

1. MASKAREN ERABILERA: Ikasle guztiek maskara jantzita joan beharko dute Eskolara eta jarrita edukiko dute Eskolako jardunak dirauen bitartean, salbu eta haize-instrumentuen kasuan; izan ere, haientzat distantzia- eta babes-neurri berariazkoak ezarriko dira.
2. Maskara erabiltzea bateraezina izanez gero jardueraren bat egitearekin, ezarritako gutxieneko distantzia gorde beharko da ezinbestean.
3. **Ikasle guztiek eskuak desinfektatuko dituzte eraikinerara sartzean eta eskola bakoitza amaitutakoan.**
4. **Koruko eta Hizkuntzako talde-eskoletan, maskara erabiliko da.**
5. **Irakasleren batek behar badu ikasleen instrumentu bat ukitu, eskuak desinfektatuko ditu gel hidroalkoholikoaz, hori baino lehenago eta ondoren.**
6. Ezin bada aldi berean maskara erabili eta haize-instrumentu bat jo edo kantua praktikatu (banako eskoletan), honako neurri hauek hartu dira:
  1. 1,5 metroko gutxieneko segurtasun-distantzia (betiere irakasle-ikasleak edo taldeko eskolako ikasleak aldi berean jotzen ez badute)
  2. Haize-instrumentua ez da irakasleari begira jarriko.
  3. Haize-instrumentuko eta kantuko ikasgelak horma mugigarriez hornituta daude
  4. **Irakasleak eta ikasleak aldi berean jo edo kantatu dezakete haien artean 2 metroko distantzia gordetzen badute eta haien artean horma mugigarri bat badute, hala ikasgeletan nola ekitaldi-aretoan (banakako zein taldekako eskoletan eta instrumentu- eta koru-taldeetan).**
7. Neurriak piano- eta akordeoi-eskoletarako
  1. **Pianoko eta akordeoiko ikasleak eta irakasleak gel hidroalkoholikoa aplikatuko dute eskuetan instrumentua erabili baino lehen eta gero.**
  2. Instrumentua xaboi-soluzio batez garbituko da eskolen artean, horretarako ikasgelan erabilgarri dagoen papera erabilita.
8. Errepertorioko entseguetan eta errepertoristadun kontzertuetan zehar, ekitaldi-aretoan edo beste espazioetan.
  1. Gogora ekartzen dugu garrantzitsua dela piano, ikasle eta irakaslearen arteko distantzia gordetzea (irakaslea bertan bada ikaslearen entseguan)
  2. Maskarak eta gel desinfektantea erabiltzea



3. Entsegua haize-instrumentu batekin eginez gero, instrumentua ez da jarriko irakasle-errepertoritari begira, eta horma mugigarri bat jarriko da ikaslearen eta piano-jotzaile errepertoristaren artean.

## - MAILEGU-INSTRUMENTUAK eta/edo partekatzekoak

1. Eskolan MASKARA JANTZITA erabiltzekoak
  1. Pianoak eta akordeoiak
    1. Eskuak gel hidroalkoholikoaz desinfektatuko dira erabili aurretik eta ondoren.
    2. Instrumentuak xaboi-soluzio batez lainoztatuko dira eta paper batez lehortu erabili aurretik eta ondoren.
  2. Kontrabaxuak, Perkusioa, Bateria, Baxu elektrikoa
    1. Eskuak gel hidroalkoholikoaz desinfektatuko dira erabili aurretik eta ondoren
    2. Maskara erabili
    3. Ez partekatu ez baketarik ez arkurik
  3. Mikrofonoak
    1. Erabiltzaileak maskara jantzita eraman behar du
2. Instrumentuak MASKARARIK GABE erabiltzea: haizekoak
  1. Hala banakako eskoletan nola taldekoetan erabilera partekatuko haize-instrumentu guztiak 24 orduko berrogeialdian egonen dira, beste ikasle batek erabili baino lehen.

## - IRAKASLEEN ANTOLAMENDUA

1. Irakasleen gelan eskuragarri egonen dira maskarak eta hidrogela, hori erabiltzekoa baita irakasle bakoitzaren lanaldirako objektuak hartu aurretik eta ondoren.
2. Fotokopiagailuaren gelan jende-pilaketarik bada, txandak ezarriko dira hura erabiltzeko. Aholkua ematen zaie irakasleei materialak prestatzeko eskolak hasi baino lehenago, eskola-orduetan ahalik eta joan-etorri gutxien egiteko eraikinean.
3. Ikasleak ezin izanen dira Atezaintzara joan fotokopiak eskatzera.
4. Irakasleek eguneroko kontrola eramanen dute irakasgai guztietarako bertaratzeen gainean, eta huts-egiteak Eskolaren aplikazioan sartuko dituzte.



5. Eskolako lehen egunetan, irakasleek azalpenak emanen dizkiete ikasleei honako hauei buruz: sarrera- eta irteera-ordutegiak, gune komunen erabilera eta dagozkien ibilbideak zein sartu eta irteteko ordutegiak. Halaber, aplikatu beharreko osasun- eta higiene-neurri guztien berri emanen zaie, batez ere segurtasun-distantzia, maskararen erabilera, eskuen garbiketa eta gelaren erabilerari dagozkienak.
6. Ikasleak eta irakasleak elkarlanean arituko dira eskolan erabilitako mahaiak, aulkiak, atrilak eta bestelako objektuak garbitu eta desinfektatzeko lanetan. Horretarako, taldeko ikasgeletan biruzida bat egonen da 6 ikasleren multzo bakoitzeko, bai eta papera ere. [18 urtetik beherako ikasleek ezin izanen dituzte erabili garbitu eta/edo desinfektatzeko produktuak, ikasgelak garbitzen laguntzeko.](#)
7. Eskolako zuzendaritzak erreferentziazko pertsona batzuk izendatuko ditu irakasleen artean COVID-19rako, eta horiek laguntza emanen dute enkargatzen zaizkien kontrol-zereginetan.
8. Instrumentuko edo taldeko eskoletan irakasleek manipulatu beharko balute ikasleen instrumenturen bat afinatzeko edo doitzeko, egin aurretik eta ondoren desinfektatuko dituzte eskuak.
9. Instrumentuko irakasleek talde-jarduerak antolatzen ahalko dituzte ekitaldi-aretoan eta 1.10 zein 2.10 ikasgeletan, higienerari eta distantzia sozialari buruzko neurriak betez, eta espazio horri dagozkion markak, aireztapen-protokoloak eta mugaketak erabiliz, erabili behar duten instrumentu-familiaren arabera.

## - **IKASKETA-KABINEN ERABILERA**

1. Ikasle ohiek goizeko ordutegian soilik erabiltzen ahalko dituzte ikasketa-kabinak.
2. Eskola-jarduerak dirauen bitartean, honako kasu hauetan erabiltzen ahalko dituzte ikasketa-kabinak edo -instrumentuak Eskolan matrikulatutako ikasleek:
  1. Denbora librean, aurrez aurreko eskolen artean (ikasle horiek ezin izan dira Eskolara lehenago sartu edo geroago atera ikasketa pertsonaletarako).
  2. Ikasleak instrumenturik eduki ez, eta Eskolan ikasi behar badu.
3. [Ikasketa-kabinak segurtasunez erabiltzeko, ikasgelako karteletan jarritako jarraibideak beteko dira.](#)





## - **TALDEKO IRAKASGAIEN ANTOLAKETA: MUSIKA-HIZKUNTZA, HARMONIA ETA KORUA**

1. Taldeak ohiko ikuspegi pedagogikoak aplikatuta antolatuko dira, kontuan harturik maila, adina, hizkuntza eta ikasleek beren ikastetxeetan dituzten irteera-ordutegiak.
2. Osasun-egoerak hala eskatuko balu, bikoizketa egiten ahalko litzateke hizkuntzako taldeetan eta ikasleak astean ordu batez bakarrik etorriko lirateke aurrez aurreko eskoletara. Harmoniako irakasgaien, ikasleek hamabostean behin etorri beharko lukete.
3. Musika-hizkuntzako ikasgela guztietan gel hidroalkoholkoa egonen da erabilgarri, bai eta spray biruzida zein papera ere, mahaiak, aulkiak eta talde ezberdinetako ikasleek partekatzen dituzten bestelako objektuak desinfektatzeko.
4. Ikasleek eta irakasleek maskara erabili beharko dute derrigorrean eskola-ordu guztietan.
5. Ikasgelaetan, 1,5 metroko tartea bermatuko da ikasleen artean zein irakaslearen eta ikasleen lehen lerroaren artean.
6. Eskola bakoitza amaitutakoan, ikasleek eta irakasleek elkarlanean desinfektatuko dituzte, soluzio biruzidaz, aulkiak, mahaiak eta gainerako taldeekin partekatzen diren objektuak. 18 urtetik beherako ikasleek ezin izanen dituzte erabili garbitu eta/edo desinfektatzeko produktuak, ikasgelak garbitzen laguntzeko.
7. Ahal den neurrian ekidinen da material partekatua erabiltzea taldeko eskoletan. Erabili behar izanez gero, erabiltzaileek gel hidroalkoholikoaz igurtziko dituzte eskuak erabili baino lehen eta ondoren.

## - **ESKOLAKO INSTRUMENTU- ETA AHOTS-TALDEEN JARDUERAREN ANTOLAKETA**

1. Maskara entsegu osoan zehar erabili behar da, haize-instrumentuekin izan ezik; kasu horretan, jotzaileek maskara erretiratuko dute jo behar duten unean.
2. Zuzendariak zorrotz eta bereziki gordeko du segurtasun-tartea. Haize-instrumentuko talderik zuzenduz gero, horma mugigarri bat paratuko da taldeko zuzendariaren eta musikarien artean.
3. Taldeek kontzertuak ematen ahalko dituzte ekitaldi-aretoan edo beste agertoki itxietan, publikoarekin eta gabe, betiere higienari, distantzia



- sozialari eta edukierari buruzko neurriak betez, eta espazio horri dagozkion markak, aireztapen-protokoloak eta mugaketak erabiliz.
4. Taldeek aire zabaleko kontzertuetan parte hartzen ahalko dute, betiere ekitaldi horietarako ezarritako edukiera-, distantzia- eta higiene-neurriak betetzen badira.
  5. Entsegu bakoitza amaitutakoan, ikasleek eta irakasleek elkarlanean desinfektatuko dituzte, soluzio biruzidaz, aulkiak, atrilak eta gainerako taldeekin partekatzen diren objektuak. 18 urtetik beherako ikasleek ezin izanen dituzte erabili garbitu eta/edo desinfektatzeko produktuak, ikasgelak garbitzen laguntzeko.
  6. Haize-instrumentuen kasuan, musikari bakoitzeko atril bat erabiliko da eta musikariek 2 m-ko distantzia gordeko dute haien artean.<sup>5</sup>
  7. Gainerako instrumentuak jotzeko, maskara derrigorrezkoa izanen da, eta atrilak, bai, partekatzen ahalko dira.
  8. Talde bateko ikasle-ratioa murriztu behar izanez gero, hori erreperitorioaren arabera banatzen ahalko da, instrumentu-atalka edo -harika, esaterako, zurezko haizea, metalezko haizea, perkusioa eta abar.

---

<sup>5</sup> Ikastetxeetan ager daitezkeen COVID-19aren kasuen aurrean jarduteko Espainiako Gobernuak argitaratu duen gidaren 8. orrialdean ezartzen da kontaktu estuzat jotzen direla baieztatutako kasu batekin 2 metro baino gutxiagoko distantzian espazioa partekatu dutenak, maskara egoki erabili gabe, egun osoan zehar pilatutako 15 minutuz baino gehiagoz. Horrenbestez, 2 metroko gutxieneko distantzia ezartzen dugu haizeko ikasleen artean eta irakaslearekiko, betiere aldi berean jo behar badute.



## I. ERANSKINA: Kudeaketa, ikastetxean gerta litezkeen COVID-19aren kasuetan

Hezkuntza-komunitateko kideetan inor (irakasleak, administrazio- eta zerbitzu-langileak, ikasleak) ezin izanen da Eskolara etorri dagozkion mediku-taldeen alta-agiria jaso arte. Ez da ezta ere etorriko infekzio-sintomarik badu –sukarra, eztula, ondoeza–edo kasu baten kontaktu estua bada eta berrogeialdia bete behar badu.

"Ikastetxeetan ager daitezkeen COVID-19aren kasuen aurrean jarduteko" Espainiako Gobernuak argitaratu duen gidak ezartzen du *COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak eduki eta aurreko 90 eguneko epean SARS-COV-2 infekzioa, PDIak baieztatua, izan duten ikastetxeko ikasleak edo langileak ez direla berriz ere kasu susmagarritzat hartuko, salbu klinikoki susmo handirik bada.*<sup>67</sup>

Osasun Ministerioak "SARS-COV-2arekiko esposizioaren aurrean Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuentzat argitaratu duen jarduketa-prozedurak" honela dio haren 6.2.1.a) puntuan: *txertoa jarrita eduki eta SARS-CoV-2arekin sintoma bateragarriak dituztenak ere kasu susmagarritzat joko dira. Kasu susmagarrietan bezala jokatu da, betiere medikuaren irizpidearen arabera manei klinikoaz bezainbatean. Infekzioa baieztatzen bada txertatze-pauta osoa bete ondoren, txertatze-akatsa izan dela joko da.*

### **Kasuen kudeaketa**

Ikastetxean, eta egungo testuinguruan, kasuak eta haien kontaktu estuak goiz atzematea eta isolatzea neurririk garrantzitsuenetakoa da segurtasun-ingurua mantentzeko eta hezkuntza- zein pedagogia-helburuak lortzeko.

COVID-19aren kasuak, ikastetxeetan, osasun-agintariek ezarritako prozedurarekin bat kudeatuko dira, eta prozedura [www.educacion.navarra.es](http://www.educacion.navarra.es) webgunean argitaratuko da.

### **Ikastetxeko irakasleen eta irakasle ez diren langileen kasuen kudeaketa.**

Ikastetxean sintomak edukitzen hasten diren langileak gunere bereiz batera erretiratuko dira, eta harremanetan jarriko dira dagokien lehen arretako medikuarekin. Kasua larria bada, larrialdi-zerbitzua duen osasun-zentro batera joanen dira.

Irakasleen eta irakasle ez diren langileen artean gerta litezkeen kasu positiboak Eskolan COVIDaren ardura duenak jakinaraziko dizkio Iruñeko Udalaren Laneko Arriskuen Prebentzioko Atalari, edo dagozkion Prebentzio Zerbitzuei. Izan ere, horiek lagunduko

<sup>6</sup> PCR edo antígeno-proba azkar positiboa

<sup>7</sup> Kontu honen gaineko balorazioa etengabe ari dira berraztertzen, baina orain eta ECDCk argitaratutako informazioaren arabera, aipatu aldi hori aplikatuko litzateke deskribatu diren berrinfekzioko kasu gehienetan (Osasun Ministerioaren Gidaren oin-oharra).



dute kontaktu estuak identifikatzen, eta birusaren agerraldirik izanez gero, berehalako ikerkuntza eginen dute hura behar bezala kudeatu dadin bermatzeko.

Erreferentzia-kontaktuak:

- Iruñeko Udalaren Laneko Arriskuen Prebentzioko Atala  
Helbide elektronikoa: [saludlaboral@pamplona.e](mailto:saludlaboral@pamplona.e)  
Telefonoak: 948 420 407 / 948 420 408

Pertsona bakandua egon den zaintza-gelan sakoneko garbiketa eginen da, gutxieneko 5 orduko denbora-tarte batez itxoin ondoren.

Inor ezin izanen da ikastetxera sartu alta medikoa izan arte. Ikasleek horren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.



## **JOAQUÍN MAYA MUSIKA ESKOLA BEREZIAREN ARRETA DIGITALAREN PLANA**

### **2021-2022ko IKASTURTEA**

- **ARRETA DIGITALAREN PLANA**

Instrumentua jotzen ikasteko-irakasteko prozesua guztiz praktikoa da eta aurrez aurreko lana ezinbestekoa da alderdi asko jorrazteko. Gainera, taldeka egindako praktikak sozializazio-osagaia dauka, eta motibaziorako zutabea da. Hala ere, aurre egiten ari garen epidemiak eragindako egoera dela-eta, bestelako antolaketa-sistema eduki behar dugu, jarduera mekanismo alternatiboetan oinarriturik gauzatzeko. Joaquín Maya Musika Eskolako sistemaren zehaztapena Arreta Digitalaren Plan honetan adierazten da.

Joaquín Maya Musika Eskolako Arreta Digitalaren Plana Hezkuntza Departamentuko Protokoloan deskribatutako egoeren inguruan egituratzen da.

- **ARRETA DIGITALAREN PLANA EGOERA EPIDEMIOLOGIKOAREN ARABERA ZEHAZTEA**

- a. **ARRETA DIGITALA BEHAR DUTEN EGOERAK**

- i. **IKASTETXEAREN ITXIERA**

Agintariek ikastetxeak ixteko agintzen badute, aurrez aurreko irakaskuntza bertan behera geratuko da.

Eskolako egutegiak indarrean jarraituko du eta ez da eskolarik online emanen ezta bideorik edo bestelako materialik bidaliko/zuzenduko ere ezarritako egun eta eskola ordutegitik kanpo.

Osasun- eta hezkuntza-agintariek, ikastetxea ixteko agindu ondoren, irakasleek bere lana ikastetxean egin dezaketela ezarriko balute, aurrez aurrekoa ez den hezkuntza honako baldintza hauetan garatuko litzateke:

- Instrumentuko banakako eskolak eta Musika-hizkuntzako zein Harmoniako taldekako eskolak:
  - o Onlineko eskolak Musika Eskolako dagokion ikasgelatik emanen dira.
  - o Onlineko eskoletara batzeko esteka aurrez bidaliko zaie ikasleei.
  - o **Eskola eguna, ordua eta iraupena ikasturte hasieran aurrez aurreko eskoletarako ezarritako berberak izanen dira.**



- Onlineko eskolak derrigorrezkoak izanen dira eta Barne-funtzionamendu araudiak ezarritako hutsegiteen erregimena aplikatuko da.
- Irakasleen puntualtasuna bermatuko da onlineko eskolaren hasieran zein bukaeran.
- Ikasleei ere puntualtasuna eskatuko zaie, eta, horrenbestez, eskola hasi baino lehenago konexioa ezarri beharko dute, finkatutako orduan hasteko.
- Koruko eskolak
  - Irakasgai horretako banakako lana egiteko bideoak, audioak, estekak eta dokumentuak jarriko dira eskura onlineko plataforma baten bidez (Drive edo antzekoa).
  - Google Meet edo Skyperen bidez hitzorduak online deitzeko aukera aztertuko da sinkronizaziorik behar ez duten jardueretarako.
- Instrumentu-taldeetako eta ganbera-musikako eskolak
  - Onlineko eskolak emanen dira instrumentu-taldeak zuzentzen dituzten irakasleen ikasgelatik, edukiak egoera berrira egokituz.
  - Besteak beste, honako jarduera hauek egin ahal izanen dira: partiturak interpretatzeko analisiak, zuzendaritza-ezagutzak ematea partitura orokorren laguntzaz, garai desberdinetako testuinguru historikoa/interpretatiboa, etab.
- Ikastaro monografikoak
  - Ikastaro monografikoak online emanen dira Skype aplikazioa erabiliz.

Osasun- eta hezkuntza-agintariek, 4. egoerara igarotzeko agindu ondoren, irakasleak ikastetxera onlineko eskolak ematera ezin direla joan ezarriko balute, ikasleei arreta emanen zaie "ii. Irakaslearen konfinamendua" puntuaren arabera.

Banakako zein taldeko eskolen ordutegia bakarrik aldatzen ahalko da familia bereko ikasle batek baino gehiagok Musika Eskolan aldi berean eskola izan eta konektatzeko adina gailurik ez badute. Familiak aurrez eskatu beharko dio Ikasketaburuari ordutegiz aldatzeko. Irakasleek eskola-ordu librerik ez badute ordutegi aldaketa egiteko, eskolak aste batean bai eta hurrengoan ez emanen dira, txandaka, prestakuntza beste bide batzuen bidez osatuz (bideoen zuzenketa Drive edo antzekoaren bidez, harremana helbide elektronikoaren bidez, etab.)

## ii. IRAKASLEEN KONFINAMENDU EGOERAK

Kasu hauetan, irakasleek eskolak online emanen dituzte. Horretarako, Eskolako Idazkariak erregistratu ondoren, erabilgarri izanen ditu telelanerako gailuak, soinu-txartela, mikrofona, partiturak eta Musika Eskolako bestelako materiala. Eskolako



Zuzendaritza-taldeak material hori irakasleei helarazteko mekanismoak bilatuko ditu, horiek ezin badira Eskolara etorri.

Gerta liteke, Iruñeko Udalak zehaztutako zenbait egoeraren ondoren, langileak telelanaren bidez haien lana egin behar izatea, konfinatuta egoteagatik. Hala balitz, ikasleei aurrez aurreko irakaskuntzatik onlineko irakaskuntzara igarotzeko jakinaraziko zaie. **Eskola eguna, ordua eta iraupena ikasturte hasieran ezarritakoak izanen dira. Onlineko eskola baten aurretik edo ondoren aurrez aurreko eskola daukaten ikasleei ere arreta bermatuko zaie.**

### iii. ZENTROAREN ITXIERA 22:00ak BAINO LEHEN

Agintari eskudunek jarduna eteteko ordutegiak ezarriko balituzte eta horrek ikastetxeko aurrez aurreko eskola-ordutegiari guztiz edo hein baten eraginen balio, lehenik eta behin ikaslea beste ordutegietara aldatzen saiatuko litzateke, betiere taldekako jardueren ratioa betetzen bada eta/edo dagokion espezialitateko instrumentu-irakasleak kaltetutako ikasleari eskola-orduak aurrez aurre emateko denbora badu. Aldaketak ikasleekin bat adostuko dira, noski.

Aldaketa posible ez balitz, arreta ez-presentziala izanen litzateke.

- **IKASLEEN GAITASUN DIGITALAREN GARAPENA**

Joaquin Maya Musika Eskolak sarbidea emanen die ikasleei eta familiei onlineko arreta garatzeko erabiliko diren aplikazioen tutorial-sorta batera, eta horrez gain familiei aholkularitza ematea ahalbidetuko duen helbide elektronikoko bat gaituko du.